

Sail honen asmoa

Jakin euskal kultur aldizkariak ez du bete gabe utzi nahi liburu-kritikaren alorrean bere ustez duen erantzunkizun bazterrezina, ongi jabetzen baita liburugintzak egungo euskal kulturaren dinamikan duen garrantziaz. Baina egiteko hori taxuz beteko badu, alde batetik aldizkariaren tasunak eta bestetik euskal liburugintzarenak eduki behar ditu kontutan.

Jakin, hiru hilabetez behin aterako den aldizkari bat da. Beraz, ez gara liburu argitaraberriez arituko. Are gehiago, euskal liburugintza oraindik batez ere harpidedunci esker mantentzen dela gogoan edukirik, irakurleak jadanik ikusirik edo bederen etxean dituen obrez aritu beharko dugu. Hildo berean, gogoan eduki beharko dugu, halaber, ohizko irakurleak ez duela suskribizioen bidez heltzen ez zaizkion liburuak erosteko ohiturarik. Bestalde, euskara kultur hizkuntza bihurtzeko ahaleginetan, besteak beste, euskaldun kultoak behar dira: hauek osatzen dute mone-daren beste aldea. *Jakin*-ek euskaldun kultoen kultur aldizkaria izan behar duenez, euskaldun kultoen gidari gertatu beharko lukeela uste dugu.

Koordenada horien hildotik abiatutik, gure lan kritikoak euskal liburugintza kultur estrategia orokor baten barnean aztertu behar duela uste dugu. Ezin gaitzeko, beraz, literatur kritika huts batetara muga: literaturgintza ez da guretzat iharduki oso baten alde bat besterik izango.

Ikuspegi honetatik (eta bego hau diogunaren adibide bezala), euskaldun kulto orok gaurregun irakurri beharko lukeen liburuetatik bat *Saioka 4* dela uste dugu dudarik gabe. Beste hainbeste esango genuke *Natur Zientziak*-eko hitzaurre eta artikulu orokorrez. Alfabetatu izateak, orain eta gure artean, gure herriaren kultur dinamikari jarraitzea esan nahi du. Eskolatik pasa behar dugu, besteak beste, arrazoï simple bategatik: anartean eskolatik pasatzeko aukerarik ukan ez dugulako. Aipatu ditugun liburuak umentzat edo gai espezifiko batetaz arduratzen direnentzat direla uste izateak, ez dugula kultur dinamika horren zentzu sakona ulertu adieraziko luke.

Hartzen diren liburu guztien berri ere emango litzateke. Bestalde, eta horretan legoke berritasun bat, gure eritziz nahiko interesgarria, liburu bakoitzari ikur bat ezarriko litzaioke, giltz honen arauera:

- * * * * : Euskaldun kulto orok irakurri beharrezko liburua
- * * * : Guztiz irakurgarria (edo guztiz interesgarria)
- * * : Interesgarria (edo irakurgarria)
- * : Gomendagaitza